

2014ko urriaren 13an , UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 3.

**Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.**

**Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko udalkideak agertu dira deneri deialdia luzatu zaien arren:**

<b>Lehendakaria:</b>	<b>Igor Iturain Iburguren</b>
<b>Zinegotziak :</b>	<b>M<sup>a</sup> Jesus Arruabarrena Esnaola</b>
	<b>Asier Iburguren Iburguren</b>
	<b>Miren Idoia Iribar Beldarrain</b>
	<b>Arkaitz Iruretagoiena Lertxundi</b>
	<b>Nekane Arrizabalaga</b>
	<b>Amaia Guruzeta Aizpurua</b>
	<b>Aritz Arruti Mintegi, eta</b>

**Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa**

**Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:**

### **1.- Aktaren onarpena**

2014ko abuztuaren 4ean egin zen Udal Batzarren akta onartua izan da. Hala eta guztiz ere Aritz Arrutik gabezi bat antzeman du, aktak ez baitu jasotzen aurreko batzarrean berak egindako eskaera, hau da, udalbatzarretako aktak iragarri-taulan ezartzea.

### **2.- AA.SSen 3. Aldaketa puntuala: Arrazubi-Olazabal: behin-behineko onarpena**

AA.SSen 3. Aldaketa puntuala: Arrazubi-Olazabal dokumentuak hasierako onarpena jaso zuen ekainaren 5ean. Jendaurrean egon eta gero –GAO, ekainaren 11- Victor Azkuek eta Gregorio Aldabaldetrekuk alegazioak aurkeztu zituzten. Abuztuaren 4ean udalbatzar honek alegazioen aurreko erabakia hartu zuen, hauetako batzuk onartuz. Horregatik erabaki zen onartutako aspektu horiek dokumentu berri batean jasotzea.

Bestalde akordio hartan eskatu zen hitzarmen batean jasotzea Victor Azkueren nahia, lehenbizi eraberrituko den etxebizitzari dagokion obra zerga konpentsatzea espaloia egin ahal izateko utzi beharko dituen lurzatiarekin. Hitzarmen hori irailaren 15ean sinatu da.

Idazkariak prozeduraren berri eman du, eta Foru Aldundiko Errepide Sailak emandako aldeko txostenaren berri eman du. Bestalde dokumentuak jasotzen duen edukia azaldu du, atal nagusien laburpena eginaz.

Bozkatu eta aldeko 8 boturekin, aho batez, beraz, beharrezko gehiengoarekin

ERABAKI DA

1.- “AA.SSen 3. Aldaketa puntuala: Arrazubi-Olazabal” dokumentuari behin-behineko onarpena ematea.

2.- COTPV-ra bidaltzea beharrezkoa den txostena eman dezan, behin – betiko onarpena Foru Aldundiari eskatu aurretik.

### **3.- 2014. Urteko 3. Kreditu Aldaketa.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 3. espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin eta GASTOAREN ERREGLA betetzen dela, 2013 aurrekontuaren likidazioak superabita eman duelako.

Alkateak adierazi du Aia-Lantzen-i utzi nahi zaion diru kopurua 3 urtetan bueltatzeko baldintzarekin dela, tesoreriak duen arazoa konpontzeko.

Aritz Arrutik galdetu du ea zergatik ez duen enpresa berak finantziazioa lortu eta bestalde, kudeaketa zuzena balitz, autosufizientea izan beharko lukeela.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu eta aldeko 6 boturekin, 2 aurka , beraz, legezko gehiengoz, honako hau

### **ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

### **KREDITU GEHIGARRIAK**

<b><u>Kapituluak</u></b>	<b><u>Izena</u></b>	<b><u>Gehikuntzak</u></b>
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.000,00
8	FINANTZA AKTIBOAK	18.000,00
<b><u>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</u></b>		<b>19.000,00</b>

### **FINANTZAKETA**

<b><u>Kapitulua</u></b>	<b><u>Izena</u></b>	<b><u>Zenbatekoa</u></b>
	<b>BAJA KREDITUETAN</b>	
2	GASTU ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	1.000,00
	<b>DIRUZAINZA GERAKINA</b>	
8	FINANTZA AKTIBOAK	18.000,00

GUZTIRA	19.000,00
---------	-----------

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

#### **4.- Turismoaren inguruan eginiko plan estrategikoa**

Arazi taldeak Aiako turismo lan estrategikoa jasotzen duen dokumentua sortu du, egoeraren diagnostikoan oinarrituz kudeaketa plan bat proposatuz.

Bozkatu eta aldeko 8 boturekin, beraz, aho batez, onartu egin da aipatutako dokumentua

#### **5.A.- Elkano auzoko frontoi eta elkarte egitasmoa onartu eta desjabetzaren inguruko erabakiak hartu**

Por acuerdo del Consejo de Diputados del 14 de mayo de 2014 (B.O.G. de 9 de julio) fue aprobado el “Plan especial para la implantación de un equipamiento comunitario –frontón y local socio-cultural- en Elkano” documento que señala como su objeto *“dar respuesta a una vieja aspiración del barrio cual es la de construir un equipamiento deportivo y social para el mismo, que se concretará en un frontón y un local auxiliar que pueda hacer las veces de equipamiento de carácter socio-cultural”*.

Para la ejecución de las instalaciones citadas resulta imprescindible la adquisición por este Ayuntamiento - mediante expropiación forzosa - de los terrenos señalados tanto en el Plan Especial como en el Proyecto técnico “ Barrio de Elkano: Frontón y sociedad” , ( referencia catastral 14-051 y 6490005 ) propiedad de Jose Antonio Ostolaza Alberdi , toda vez que éste , mediante sus representantes, no llegara a un acuerdo con este Ayuntamiento para su venta ,en la reunión celebrada el día 16 de julio , y tampoco contestara al escrito de invitación al acuerdo lanzado desde este ayuntamiento.

La aprobación de dicho Plan Especial lleva implícita así la declaración de la utilidad pública así como **la necesidad de ocupación** - art. 176 de la Ley del Suelo y Urbanismo del País Vasco –Ley 2/2006- de las obras en él contempladas, y por lo tanto, lleva consigo la autorización para expropiar los bienes y derechos necesarios para su realización ( condiciones éstas exigidas por los artículos 9 y 10 de la Ley de Expropiación Forzosa, de 16 de diciembre de 1954).

La ley citada ,en su art. 178.2 establece que en el supuesto de que el órgano expropiante sea el Ayuntamiento, el trámite de **declaración de urgente ocupación** de bienes y derechos exigido en la legislación expropiatoria sólo requerirá de acuerdo municipal.

La urgente ocupación de los terrenos deriva de la existencia de una ayuda económica del Gobierno Vasco-programa EREIN - cuyas bases exigen la realización de la obra con anterioridad a 31 de diciembre de 2014,de manera que se pone en peligro la viabilidad financiera del proyecto en el supuesto de pérdida de la subvención otorgada por importe de 266.572 €

Visto el proyecto de obra “ Barrio de Elkano: Frontón y sociedad”

Teniendo en cuenta que el Secretario-Interventor informa de que existe suficiente consignación presupuestaria en el ejercicio 2014.

Teniendo en cuenta que la percepción de la subvención del Gobierno Vasco exige la realización de la obra con anterioridad al 31 de diciembre de 2014.

Teniendo en cuenta que el proyecto recoge la documentación exigida por el art. 90 del T.R.R.L – planos y la valoración de los terrenos a expropiar-.

De acuerdo con los antecedentes y consideraciones expuestas, , y en virtud de las atribuciones que se confieren por el artículo 3.4 del Decreto de 26 de abril de 1957, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley de Expropiación Forzosa -REF-, al Pleno de la Corporación en esta materia ( así como el art. 22, ñ) de la Ley de Bases del Régimen Local, al superarse el 10% de los recursos ordinarios del presupuesto ) con 6 votos a favor y 2 en contra, por lo tanto, con la mayoría legal necesaria, se ha adoptado el siguiente

#### ACUERDO

**PRIMERO.-** Aprobar el **Proyecto** “ Barrio de Elkano: Frontón y sociedad”, considerando implícita la declaración de utilidad pública de las obras comprendidas en el mismo a los efectos de su expropiación y declarar la “necesidad de su **urgente** ocupación”.

**SEGUNDO.-** Formular la relación de bienes y derechos afectados por actuación expropiatoria con referencia catastral 14-051 y 6490005 , en orden a la ejecución del proyecto técnico de obra referido. La descripción e identificación del bien inmueble es la siguiente:

- - Parcelas: referencia catastral 14-051 y 6490005 .
- - Superficie: 1.022,02 y 482,95, respectivamente.
- - Titular registral: Jose Antonio Ostolaza Alberdi .
- - Porcentaje titularidad: 100%.
- - Cargas: Ninguna.

**TERCERO.-** Conceder trámite de audiencia al interesado y someter el expediente a información pública por un plazo de 15 días, de conformidad con el artículo 18 de la Ley de Expropiación Forzosa, de 16 de diciembre de 1954 -LEF-, a los efectos de que presente las alegaciones que estime pertinentes.

#### **5.B.- Elkano auzoko frontoi eta elkarte egitasmoko obrak esleitzeko prozedura jasotzen dituzten pleguak onartu eta kontratazio espedientea abian jarri.**

Alkateak egitasmooaren berri eman ondoren obra esleitzeko prozedura arautzen dituzten plegu tekniko eta administratiboen berri eman du,( ohartaraziz frontoiaren teilatua esleipenetik kanpo gelditzen dela):

- Epea: 20 aste
- Prezioa BEZa barne: 711.913,81 €

- Izapidetza: premiazkoa eta
- Jardunbidea: negoziatua, publizitatearekin
- Balorazio irizpideak: eskeintza ekonomikoa %65, hobekuntza teknikoak %20, langabetuen kontratazioa %5 eta epe murrizketa %10.

Aritz Arrutik bere taldearen posizioa azaldu du, esanaz, kosto handia izanik obrak ez duela lehentasunik eta bestalde, egitasmo osoa ez ateratzeak lehiara gardentasun falta adierazten duela.

Alkateak, bere aldetik, erantzun dio, prozedura negoziatua ez dela prozedura iluna eta egokia dela udal interesak defenditzeko eta teilatua kanpo uztea, betiere beste 3. enpresa batek egin beharreko lana dela. Bestalde, azaltzen du, prozedura honekin %25eko jeitsierak lortu daitezkeela. Azkenik, kontratazio mailan parte hartzera gonbidatzen ditu Bilduko zinegotziak.

Amaia Guruzetak parte hartzeko asmoa azaldu du.

Bozkatu eta aldeko 6 boturekin (2 aurka), beraz, beharrezko gehiengoarekin, ondorengo akordioa hartu da:

1.- “Elkano auzoa: frontoia eta elkarte” egitasmoko obrak esleitzeko prozedura jasotzen dituzten plegu teknikoak –arau teknikoak eta partikularren Pleguak eta arau administratiboen Pleguak-onartzea.

2.- TGB-ren esku uztea kontratoaren esleipena.

3.- Prozedura aldetik premiazkozat jotzea, aplikagarriak diren epeak erdira moztuz, urtebukaerako obrak bukatuta egoteak eskatzen baidu laguntza emalea den Eusko Jaurlaritzak, eta

4.- Udal web orrialdeko Kontratatzailearen Profilean argitaratzea lizitazio iragarkia.

## **6.- Eskaera eta galderak**

Bildu taldeak aurkeztutako mozioaren inguruan, Aritz Arrutik Alkateari gogorarazi dio agindu egin zuela Udalbatzar hontan aztertzea fracking-aren inguruko mozioa. Alkateak erantzun dio esanaz aurkeztutako 3 mozioak hurrengo Udalbatzarrean aztertuak izango direla.

**Bilera, 19,40tan bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, Idazkaria naizen honek akta hau jasotzen dut, Aian 2014ko urriaren 14ean.**

**IDAZKARI -KONTUHARTZAILEA**